


# EkoLinguA

*Ekologia Linguistikoaren bidez hizkuntz  
komunitatea Ahalmentzen laguntzeko*



## SOLAS-JOKOA

## EkolinguA solas-jokoa eta DiKomA proiektua:

Zuzendaria: J. Inazio Marko

Sustapen Taldea: Eusko Ikaskuntza, Soziolinguistika Klusterra

Garapen Taldea eta babesleak: Eusko Ikaskuntza, Soziolinguistika Klusterra, Elhuyar Aholkularitza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA), Zumaiaiko Udala, Errenteriako Udala, Oñatiko Udala, Bermeoko Udala. Aholkulariak: Iñigo Arteatx (HUHEZI), Iñaki Martinez de Luna (EHU), Mikel Irizar (Komunikabideetan aditua) eta Oihan Moragues (parte-hartze teknikaria).

2015eko martxoa



Eskerrik asko *Play Decide* ereduari oinarritzen den **EkoLinguA Solas-jokoa** deskargatzeagatik!

Gehienez 7 pertsonaz osatutako talde batek Decide-rekin jolasteko behar dituen elementu guztiak ditu kit honek. Parte-hartzaile gehiago badituzu, talde bakoitzari kit bat eman.

Kit-a A4 paperean edo kartoi mehean inprimatu daiteke. Eraitza ona lortzeko, erabili 160 g/m<sup>2</sup>-ko papera.

Lehen 9 orriek kolore ezberdinetako ertzak dituzte, zer koloretako orrietan inprimatu behar diren jakiteko. Hiru edo lau orri berdeak dira, beste hiru edo lau urdinak, bat horia eta bi laranja.

Gainerako orriak orri edo kartoi mehe zurietan inprimatu behar dira.

Azken lau orriek mahai-tapiza eta parte-hartzaile bakoitzarentzako argibideak dituzte.

***Garrantzitsua: parte-hartzaile bakoitzak A3 formatuko mahai-tapiz bat izan behar du.***

Argibideen txartela koloretako paperean inprimatzea gomendatzen da; hala ere, zuri-beltzean inprimatutakoak ere balio du.

Egiaztatu parte-hartzaileak adina mahai-tapiz eta argibide dituzula.

Ongi pasa ***EkoLinguA Solas-jokoarekin!!***

Galderaren bat egin edo informazioa jaso nahi baduzu, bidali mezu bat helbide hauetara:

[ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus](mailto:ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus) edo [kluster@soziolinguistika.eus](mailto:kluster@soziolinguistika.eus).



## Creative Commons License Deed

Attribution-Share Alike 3.0 Unported

You are free:



to **Share** — to copy, distribute and transmit the work



to **Remix** — to adapt the work

Under the following conditions:



**Attribution** — You must attribute the work in the manner specified by the author or licensor (but not in any way that suggests that they endorse you or your use of the work).



**Share Alike** — If you alter, transform, or build upon this work, you may distribute the resulting work only under the same, similar or a compatible license.

With the understanding that:


**Waiver** — Any of the above conditions can be waived if you get permission from the copyright holder.

**Public Domain** — Where the work or any of its elements is in the public domain under applicable law, that status is in no way affected by the license.

**Other Rights** — In no way are any of the following rights affected by the license:

- Your fair dealing or fair use rights, or other applicable copyright exceptions and limitations;
  - The author's moral rights;
  - Rights other persons may have either in the work itself or in how the work is used, such as publicity or privacy rights.
- **Notice** — For any reuse or distribution, you must make clear to others the license terms of this work. The best way to do this is with a link to this web page.

To view a copy of this license, visit <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/> or send a letter to Creative Commons, 171 Second Street, Suite 300, San Francisco, California, 94105, USA.



## Argibideak

---

### 1. Prestaketa

- Inprimatu PDFak koloredun orrietan edo kartoi mehean, fitxategien izenen arabera.
- A4 orri hauek behar dituzu: horia (1), laranja (2), berdea (3 edo 4), urdina (3 edo 4) eta zuria (7).
- Ebaki txartelak.
- Inprimatu edo kopiatu jokalaria-kopurua adina mahai-tapiz eta argibide-orri. EkoLinguA jokoarekin jolasteko pertsona-kopuru egokiena bost eta zazpi artekoa da.

### 2. Hasi aurretik

- Dinamizatzailleak argibide hauek azalduko dizkie jokalariei eta jokoa bideratuko du.
- Hasten denetik amaitu arte, EkoLinguA-k 80 minutu irauten ditu gutxi gora behera.
- Jokoaren helburua, amaieran partaideen artean elkarrekin osatu eta adostutako ahalik eta jokaldi gehien osatzea izango da. ***Jokoa bai? Zenbat?***
- Jokalari guztiek mahai-tapiz bat dute haien aurrean. Dinamizatzailleak txartelak banatuko ditu eta jokalariek mahai-tapizaren gainean jartzen joango dira.
- Jokoak hiru buelta ditu: 1) Lehenengo bueltan, jokalariek kartak irakurri eta informazioa partekatu behar dute. 2) Bigarren bueltan, jokalariek kartetan ateratakoarekin solastu eta eztabaidatu egingo dute. 3) Hirugarren bueltan, jokalariek taldearen erantzun bateratua adosten eta jokaldia (***Jokoa bai?***) osatzen saiatu behar dute.
- Lehen buelta hasi aurretik, dinamizatzailleak arauen berri (behean ezkerrean) eman behar die jokalariei, eta txartel horiak banatu. Edozeinek erakutsi dezake txartel hori bat, eztabaida eteteko, norbaitek arauen bat urratu duela uste badu. Arazoa konpondu ondoren, jarraitu eztabaidatzen.
- Mahai-tapizaren goiko aldean, eskuinaldean, oharrak eta 'hasierako pentsamenduak' idazteko tokia dago.

### 3. Jokoa zehar

#### 1. buelta. Irakurri eta azaldu

- Jokoaren atal honek 30 minutu inguru irauten ditu.
- Jokalari guztiek "*Zer da hizkuntza-ekologia*" sarrera irakurri behar dute (goiko aldean, ezkerrean). Jokalariari sortzen zaizkion burutazioak '*hasierako pentsamenduak*' (goiko aldean, eskuinean) tokian idatzi ditzake.
- Ondoren kartak banatu, irakurri eta azaldu egin behar dira.
  - a) Dinamizatzailleak *Istorioren* bina karta banatuko ditu. Jokalari bakoitzak **bat aukeratu** behar du, jasotakoetatik deskartea eginez, sobratuetakoetatik aukeratuz edota kideren batekin trukaturaz. Aukeratutakoa mahai-tapizean jarri eta jarraian bakoitzak berea irakurri eta besteei azaldu behar die.
  - b) Ondoren, dinamizatzailleak *Informazio* izeneko hiruna karta banatuko ditu. Jokalari bakoitzak **bi aukeratu** behar ditu, deskartea eginez edota trukaturaz, eta mahai-tapizean jarri. Jarraian bakoitzak **karta bana irakurri** eta besteei azaldu behar die, baina (eta hau araua da) beti ere aurreko istorioetan agertutakoekin lotura eginez.
  - c) Azkenik, dinamizatzailleak *Eztabaidagaia* izeneko hiruna karta banatuko ditu. Jokalari bakoitzak **bi aukeratu** behar ditu, deskartea eginez edota trukaturaz, eta mahai-tapizean jarri. Jarraian bakoitzak **karta bana irakurri** eta besteei azaldu behar die, baina beti ere aurreko istorio eta informazioetan agertutakoekin lotura eginez.

- Jokalariak edozein unetan erabil ditzakete txartel zuriak, behar duten informazioa edo eztabaidagaia idazteko.
- Atal honen bukaeran, mota guztietako txartelak daude mahai-tapizetan, azken irudian ikus daitekeen bezala.

## 2. buelta. Solastu eta eztabaidatu.

- Jokoaren atal honek beste 30 minutu inguru irauten ditu.
- Buelta honetan jokalariek kartetan ateratakoarekin solas egin, eztabaidatu eta kartekin multzoak egin behar dituzte.
- Solasaldia irekitzeko modu bat baino gehiago dago, 'eztabaida askea' izan daiteke edota 'txandaka' hitz egiten hasiz. Eztabaidan zehar guztiek saiatu behar dute arauak errespetatzen (bestela, txartel horiak erabil daitezke).
- Eztabaida moteltzen bada, 'erronka-txartelak' erraztu dezakete bidea. Dinamizatzaileak buruz behera banatuko ditu txartelak. Jokalariak txartelak irakurri eta erronkari erantzun diote.
- Behin solasaldia abiatu ondoren:
  - a) **Garrantzitsua**, jokalariek **kartak erabili** behar dituzte iritziak ematerakoan, beren argumentuak ahal dela kartekin lotuz. Norberaren kartak, besteak edota deskartean mahaian utzitako kartak erabili ditzakete.
  - b) Jokalariak beren argumentuekin batera erabiliko dituzten kartak mahaira bota eta pilatu behar dituzte, eta antzeko ikuspuntua edo gaia dutenekin karta-multzoak edo **familiak** osatzen hasi.
- Txartel-mota guztiak erabil daitezke familia bat egiteko: istorioak, informazioak, eztabaidagaia, zuriak...

## 3. buelta. Jokoa bai? Elkarrekin Jokaldiak adostu eta osatu.

- Jokoaren azken atal honek 20 minutu inguru irauten ditu.
- Buelta honetan **jokaldiak** osatzen saiatu behar dute jokalariek ahalik eta gehien.
  - a) Aurreko bueltan eztabaidan zehar mahaian osatu dituzten **karta-familiak adostu** (gutxienez bat) eta bakoitzari dagokion gaiaren arabera **izen bat jarri**. Horietako bakoitza **jokaldi** bat izango da.
  - b) Jokaldi bakoitzarekin **Jokaldi-orri** bana bete. Bertan jokaldiaren izena, jokaldia osatzen duten kartak eta jokaldiaren ondorioak bildu behar dira.




## 4. Jokoaren ostean

### Proposamenak bota (*aukeran*). Animatuko gara?




- Eztabaidan hitz egindakoak eta Jokaldietan adostutakoak kontuan hartuz, aukerako urratsa izan daiteke jokalariek bere ingurunean bideratzeko proposamenak edota konpromiso moduak luzatzea eta "Proposamenen eta Konpromisoen Orrian" jasotzea.




### Emaitzak zabaltzeko




- Jokoa amaitu ostean, antolatzaileek edo dinamizatzaileak Jokaldi-orrietan jasotako jokaldiak [www.soziolinguistika.eus/EkoLinguA](http://www.soziolinguistika.eus/EkoLinguA) webgunera igoko dituzte, eta horrela nahi duenak eskura izango ditu leku ezberdinetan egindako EkoLinguA saioen emaitzak.
- Posizionamenduen baloratzea egiten den kasuetan, dinamizatzaileak botazioaren emaitzak [www.playdecide.eu](http://www.playdecide.eu) webgunera igoko ditu, 'Partekatu zure emaitzak' funtzioa erabiliz. Emaitza horiek European jokaturako Decide saio guztien emaitzei gehituko zaie.




1. Istorioa	2. Istorioa	3. Istorioa
 <p><b>Josefina, 61 urte</b></p>	 <p><b>Aimar, 14 urte</b></p>	 <p><b>Maria, 42 urte</b></p>
<p>Aurrezki-kutxa batean egiten dut lan, orain zentrolean, baina lehen jendaurrean. Etxean ez nuen euskara jaso eta 80ko hamarkadan saiatu nintzen ikasten, barnetegi eta guzti. Eta maila bat hartu nuen, baina ez suelto hitz egiteko adinakoa, eta atzean utzi nuen ikasitakoa. Nirea da erru nagusia, ados, baina bezero edo lankide euskaltzaleek ez zidaten asko lagundu. Nahi dute nik euskaraz egitea haiek bezala, eta ez naiz iristen. Baina ulertzen diet euskaraz egiten didatenean. Zergatik ez didate onartzen gaztelaniaz erantzutea?</p>	<p>Ikaslea naiz. Eta euskararena rollo hutsa da. Eskolan klase guztiak euskaraz, eta andereñoak plastada ematen euskaraz egiteko. Baina gelatik kanpo erdaraz egiten dugu denok, gure modura hitz egin dezakegulako. Euskarak ez du molatzen, andereñoen hizkuntza da, eta batzuetan gurasoena edo politikariena, buatzabal!</p>	<p>Administraria naiz enpresa batean. Eta euskara abertzaleena da. Ikusi besterik ez dago nork erabiltzen duen gehien. Eta ni nazionalismoen kontra nago, munduan mugak erortzen ari dira eta ingelesa edo txinera dira hizkuntza garrantzitsuak. Euskara altxor bat da eta ados nago mantentzeko, baina inposiziorik gabe.</p>
<p>Karta zuria</p>	<p>Karta zuria</p>	<p>Karta zuria</p>



<p><b>4. Istorioa</b></p>  <p><b>Joxe Manuel, 64 urte</b></p>	<p><b>5. Istorioa</b></p>  <p><b>Mikel, 52 urte</b></p>	<p><b>6. Istorioa</b></p>  <p><b>Garazi, 37 urte</b></p>
<p>Jubilatu berria naiz, baina ez euskararen aldeko borrokatik. Francoren garaian zapalkuntza gogorra sufritu genuen euskaraz egin nahi genuelako, baina gero ere egurra jaso dugu: euskal egunkaria itxi, udal euskaldunak auzipetu... Euskalgintza beti dago erasoen beldur. Eta gure legeek eta erakundeek ez gaituzte behar bezala babesten. Abertzaleen arteko harresi bat behar da euskarak bere leku segurua izan dezan. Eta independentzia, noski. Hori lortzen ez dugun bitartean, beti izango ditugu arazoak.</p>	<p>Irakaslea naiz unibertsitatean, eta euskaltzalea. Arrazoi asko ditut horretarako: euskarak balio afektiboa du niretzat, munduko hizkuntzak aberastasuna dira, justizia eta berdintasuna maite ditut... Hala ere, kezkatuta nago, arrisku handiak ikusten ditut, gauzak ondo egiten asmatzen ez badugu. Euskarak oraindik masa kritiko txikia dauka gogor jokatzeko, baina irmotasun nahikorik gabe oso poliki egingo du aurrera, egiten badu. Nola uztartu neurri aktibo irmoak hartzea eta kontrako jarrerarik ez sortzea?</p>	<p>Fisioterapeuta naiz. Euskaraz egin nituen ikasketak, eta etxean edo lagunekin nagusiki euskaraz bizi naiz. Nire belaunaldiak zortea izan du, ze duela 25 urteko eskola eta kale-giroa euskararen aldekoak ziren, gaur ez bezala. Igual gaur euskaldunagoak gara, baina orduan euskaltzaleagoak ginen. Eta, zaletasunik gabe, erraz uzten zaio libre euskarari, zailtasunak sortzen direnean. Hor ikusten dut nik arazoa: euskarari eutsi egin behar zaio, erdarak beti daude hor. Eta ez da beti indarririk edo gogorik izaten etengabe ahalegina egiten ibiltzeko.</p>
<p>Karta zuria</p>	<p>Karta zuria</p>	<p>Karta zuria</p>

<p><b>7. Istorioa</b></p>  <p><b>Alaia, 19 urte</b></p>	<p><b>8. Istorioa</b></p>  <p><b>Jorge, 47 urte</b></p>	<p><b>9. Istorioa</b></p>  <p><b>Salif, 27 urte</b></p>
<p>Lanbide-heziketan nabil eta bertso-giroan ere bai. Txikitatik gustatzen zait hitzekin jolas egitea, eta bertso- eskolan mundu bat aurkitu nuen. Maialen Lujanbioren ibilbidea miresten dut, eta gustatzen zait bertsolarien artean sortzen den lankidetzeta-/lehia-giro hori. Eta konturatzen naiz jolasarekin batera nire euskara jantzi egin dela, eta nire euskara aberatsagoa dela inguruko askoren gaztelania baino.</p>	<p>Langabetua naiz eta euskaldun berria. Beno, duela hogeita bost urte ikasi nuen euskara eta ez dakit noiz arte izango naizen “euskaldun berria”, baina tira! Egia esan “berria” ez, baina “bakartia” banaiz. Euskara ikasi nuen sinetsita denok egingo genuela urrats hori, baina nire inguruan bakarra izan naiz, eta ez familian, ez koadrilan ezin dut euskaraz egin. Gainera, iruditzen zait, askotan, euskaraz ari naizenean, desiratzen egoten direla besteak edozein aitzakia baliatzeko erdarara pasatzeko; nahikoa da berba bat, esaera edo aipu bat, erdaraz hasi eta horretan jarraitzeko, “¡Por fin!” esango balute bezala.</p>	<p>Kaleko saltzailea naiz. Malitik etorri nintzen duela hiru urte eta Euskal Herriko hainbat tokitan ibili izan naiz. Berehala ohartu nintzen hemen bazela euskara, eta nola ohituta gauden hizkuntza asko erabiltzen, euskaraz ere oinarrizkoena ikasi nuen aste gutxitan. Hala ere, nire larru beltza ikusten dutenean, gehienek gaztelaniaz egiten didate. Oso arraroa egiten zait hori, ze nik gaztelania ez dut euskara baino hobeto egiten.</p>
<p>Karta zuria</p>	<p>Karta zuria</p>	<p>Karta zuria</p>

<b>10. Istorioa</b>	<b>11. Istorioa</b>	<b>12. Istorioa</b>
 <p><b>Yolanda, 33 urte</b></p>	 <p><b>Oihane, 22 urte</b></p>	 <p><b>Esti, 24 urte</b></p>
<p>Taberna bateko zerbitzaria naiz, argentinarra. Eta kokoteraino nago euskararen kontu honekin. Ondo ikusten dut euskara dakitenek beraien artean euskaraz egitea, edo esperantoz nahiago badute. Baina denek dakite gaztelania, nik bezala, eta, gainera, gaztelania ere ofiziala da hemen. Horregatik sutu egiten nau niri euskaraz egiten didaten egoskor horien jarrerak, ni ere euskara ikastera behartu nahi nautelako. Zertarako hartu beharko nuke lan hori, ez badut pentsatzen betirako hemen gelditzea? Iruditzen zait latinoen kontrako jarrera dela.</p>	<p>Ikasle unibertsitarioa naiz eta euskaraz egin ditut ikasketa guztiak orain arte, eta herrian nagoenean ere, nire lagun eta familia artekoekin euskaraz egiten dut. Unibertsitatera etorri eta ikasketak euskaraz egiten ditugun arren, gure artean gaztelania nagusitu da ia-ia konturatu gabe. Badakit gaztelania nagusitzea dela errazena, baina hori aldatzeko lana hain da neketsua!</p>	<p>Gitarra-jotzailea naiz eta rock talde batean jo dut azken urteotan, beti euskaraz. Orain, talde berria osatu dugu eta ingelesez kantatzea erabaki dugu, badugulako nazioartean entzunak izateko nahia. Gaur egun, gainera, Internet bitartez oso erraz jar gaitezke “merkatuan”, eta entzunak izateko ezinbestekoa da ingelesez egitea. Taldearen izena ere ingelesez jartzea erabaki dugu.</p>
<p>Karta zuria</p>	<p>Karta zuria</p>	<p>Karta zuria</p>

<b>13. Istorioa</b>	<b>14. Istorioa</b>	<b>15. Istorioa</b>
 <b>Fernando,</b> 52 urte	 <b>Manuel,</b> 47 urte	 <b>Josu,</b> 45 urte
<p>Herri euskaldun batean bizi naiz eta euskaraz aritzen naiz bertako denda eta zerbitzu gehienetan. Batzuetan, halere, banku edo medikuren batekin gaztelaniaz egin behar izaten dut, baina ez dit horrek arazorik sortzen. Azken 30 urteotan asko aurreratu da komunikabideetan, eskoletan, unibertsitatean eta herriko erabileran, eta ez dut ulertzen gauza guzti- guztiak euskaraz egitearekin tematu beharra!</p>	<p>Gure gurasoak erdaldunak dira, Burgosetik etorri baitziren gaztetan hona lanera. Nik eta nire anai- arrebek ikastolan ikasi genuen eta han hartu genuen euskara, baina etxeko hizkuntza gaztelania izan da beti; bueno, beti ez. Izan ere, gauza bitxi bat kontatu nahi dizuet: 14-15 urte nituela, anaia zaharrenak esan zigun gure artean euskaraz hitz egiten hasi behar genuela. Flipatuta zegoela esan genion, baina egoskortu egin zen eta konbentzitu egin gintuen. Hasieran oso-oso gogorra, erridikulua egin zitzaigun gure artean euskaraz hitz egitea, baina azpimarratu nahi dizuet posible dela; kosta egiten da, bai, baina posible da. Bitxia bada ere, gaur egun, arraroa egiten zait, Burgosen gaudenean, gure artean gaztelaniaz aritzea.</p>	<p>Herri euskaldun batean bizi naiz, familia euskalduna dut eta euskaraz egin nituen ikasketak. Seme-alabek euskaraz hitz egiten dute. Bikotearekin gaztelaniaz hitz egiten dut eta koadrilan, segun, bueno, agian gaztelaniaz gehiago. Euskararen aldekoa naiz eta ahal dudan guztietan, ikastolen festetan eta Korrikan hartzen dut parte (aitortu beharra dut hunkitu egiten nauela). Lanean gaztelaniaz egiten dut. Irakurri eta idatzi ere, aukeran, nahiago dut gaztelaniaz.</p>
Karta zuria	Karta zuria	Karta zuria

<p><b>1. Informazio-karta</b></p> <p><b>Hizkuntza-ekologia</b></p> <p>Hizkuntza eta ekologia jartzen ditu harremanetan; eta hizkuntza bere ingurunean, komunitatean, kokatzen du. Hizkuntza desberdinen arteko harreman ekologikoa proposatzen du.</p>	<p><b>2. Informazio-karta</b></p> <p><b>Iraunkortasunaren printzipioa</b></p> <p>Hizkuntza guztiak bizirik irautea lortu nahi du hizkuntza-ekologiak eta arreta berezia jartzen du ahuldutako hizkuntzen etorkizunean; horrela bakarrik mantenduko baita hizkuntza-aniztasuna.</p>	<p><b>3. Informazio-karta</b></p> <p><b>Nortasunaren kontzientzia</b></p> <p>Zer da hizkuntza gizakiarentzat? Hizkuntzak gizartean kokatzen du gizakia, komunitatean, herrian; taldearen parte egiten du. Hizkuntzak iraganaren kontzientzia eta etorkizuneko proiektzioa ematen du, identitatea... baita jolasa, gozamena, plazerra, artea... ere.</p>
<p><b>4. Informazio-karta</b></p> <p><b>Hizkuntza-aniztasuna</b></p> <p>Zergatik da garrantzitsua hizkuntza-aniztasuna? Gizarte batek zenbat eta hizkuntza gehiago izan, mundu ikuskeraz zabalagoa izango da, eta kanpoko aldaketei erantzuteko modu edo baliabide gehiago izango ditu gizarteak. Gainera, hizkuntza-aniztasuna gaur egungo gizarte gehienetan errealitatea da. Gizarte elebakar gutxi daude munduan zehar.</p>	<p><b>5. Informazio-karta</b></p> <p><b>Hizkuntzaren barne-aniztasuna</b></p> <p>Euskara modu askotarikoa da, anitza; euskalkien aniztasuna aberastasun handia da. Euskalkiek eta batuak biek ziurtatuko dute euskararen etorkizuna.</p>	<p><b>6. Informazio-karta</b></p> <p><b>Hizkuntza guztien balio unibertsala</b></p> <p>Bitzita duenak izateko eskubidea du eta guztiontzat du balioa; hizkuntza guztien artean osatzen baita munduko hizkuntza-aniztasuna. Gainera, aniztasuna eta dibertsitatea balio unibertsalak dira. Hizkuntza galtzeak mundua pobreagoa egiten du, gizateria pobretzen eta ahultzen du.</p>
<p><b>7. Informazio-karta</b></p> <p><b>Belaunaldien arteko elkartasuna: transmisioa</b></p> <p>Hizkuntza-garraiatazaileak gara; zubiak gara; hizkuntza ez baita gurea. Guk jaso, eutsi, erabili eta eman egiten dugu, ondorengoei jaso duguna baino aberatsago eta ahalik eta erabilgarrien emateko berriro.</p>	<p><b>8. Informazio-karta</b></p> <p><b>Berdintasunaren printzipioa</b></p> <p>Egoera desberdinetan daudenak berdin tratatzea ez da berdintasuna. Aukera berdinak izateko aukera ematea da berdintasunaren printzipioa, ekitatea bilatzea. Horregatik, beharrezkoa da tokian tokiko hizkuntzen alde gizarte mailako babes- eta garapen-neurriak hartzea, aukera-berdintasunera heltzeko.</p>	<p><b>9. Informazio-karta</b></p> <p><b>Hizkuntzak eta globalizazioa</b></p> <p>XXI. mendeko globalizazioari eredu berria: hizkuntzen iraunkortasunaren alde egitea historiaren alde egitea da, justiziaren alde, ekitatearen alde, garapen iraunkorraren alde, mundu hobeari alde. Hizkuntza-aniztasuna babestea eta garatzea etorkizuneko pentsaera da; elebakartasuna, berriz, iraganekoa.</p>

<p><b>10. Informazio-karta</b></p> <p><b>Hizkuntzen arteko lehia</b></p> <p>Hizkuntza batzuk besteak baino hobeak dira? Hizkuntza guztiek balio berbera dute; ez dago hizkuntza handiagorik, hoberik, zailagorik, ederragorik, egokiagorik... Hizkuntza bat hobetzat hartzen da, hizkuntza-komunitate hori hobetzat hartzen denean.</p>	<p><b>11. Informazio-karta</b></p> <p><b>Irabaztearen kontzeptua</b></p> <p>Hizkuntza ahulduak irauteko funtzio berriak irabazi behar ditu, esparruak, espazioak, hitzunik, bihotzak... denok irabazteko; zuk irabaziz guk irabazten dugu; zenbat eta jende gehiagok toki gehiagotan hizkuntza erabili, orduan eta aukera gehiago elkarrekin aritzeko.</p>	<p><b>12. Informazio-karta</b></p> <p><b>Subsidiaritatearen printzipioa</b></p> <p>Euskaraz egin daitekeena, ez dago zertan erdaraz egin. Lekuan lekuko produktuari, kontsumoari, kulturari, energiari, hizkuntzari balioa ematea eta erabiltzea da kontua; kanpokoan izan dadila bertokoa osatzeko, ez lekua kentzeko.</p>
<p><b>13. Informazio-karta</b></p> <p><b>Elkartasunaren printzipioa</b></p> <p>Hizkuntza sendoko hiztunen eta ahuldutako hiztunen arteko elkartasuna lortu behar dugu, elkar inplikatzeko, elkar laguntzeko, elkar elikatzea. Gure kasuan, euskaldunen eta erdaldunen inplikazioa.</p>	<p><b>14. Informazio-karta</b></p> <p><b>Etorri berriak eta hizkuntza</b></p> <p>Aniztasuna ez da mehatxua, aukera baizik. Batetik, etorri berrien hizkuntzaren aurrean interesa eta errespetua erakustea egin behar etikoa da. Bestetik, lekuan lekuko hizkuntza ikastea onuragarria da gizartearen parte aktiboa izateko eta aukera berdina izateko.</p>	<p><b>15. Informazio-karta</b></p> <p><b>Eleaniztasunaren edo poliglotizazioaren onurak</b></p> <p>Gehiagok gehitu egiten du, ez du kentzen. Gizakiok eta gizarteak gai gara hizkuntza bat baino gehiago izateko. Hizkuntzek lagundu egiten dute harremanak zabaltzen, kulturak ezagutzen, artea ulertzen, pentsamendua aberasten, sentimenduak dibertsifikatzen, identitatea errotzen eta aukera ekonomikoak handitzen, besteak beste.</p>
<p><b>16. Informazio-karta</b></p> <p><b>Errespetuzko elkarbizitza</b></p> <p>Hizkuntza ahuleko hiztunak ez du beti egokitu behar hizkuntza nagusiaren praktikara. Lekuan lekuko hizkuntza ezagutzea, erabiltzeko aukerak ezartzea eta berau erabiltzea da praktika orekatuak ziurtatzeko modu bakarra. Hau da, ez da praktika orekatua, ez errespetuzko jokabidea, beti alde batek hizkuntza aldatzea.</p>	<p><b>17. Informazio-karta</b></p> <p><b>Hizkuntzaren ekosistema</b></p> <p>Hizkuntzek ingurune egokiak (ekosistemak) behar dituzte garatzeko. Hori gabe, hizkuntzak ahuldu eta galtzeko arriskuan jartzen dira. Ekosistemak beren iraunkortasuna ziurtatzeko, gutxieneko funtzioak eta ezaugarri zehatzak behar dituzte.</p> <p>Euskararen kasuan, ekosistema Euskal Herriko espazioan kokatzen den komunitatea da; ez dauka besterik munduan. Beraz, gure ekosisteman ahalik eta modu osatuenean eutsi behar diogu. Guk ez badugu egiten, ez duelako beste inork egingo.</p>	<p><b>18. Informazio-karta</b></p> <p><b>Hizkuntzen ingurune espezifikoak</b></p> <p>Ingurune geografiko berezietan (lurralde espezifikoak, udalerriak, auzoak...) edo esparru zehatzetan (ikastetxeak, lantegiak, erakundeak, norbanakoa) eragiteko modu ezberdinak aztertu eta planifikatu behar dira; horietan eraginda, hizkuntzaren ekosistema osoan eragiten da.</p>

<p><b>19. Informazio-karta</b></p> <p><b>“Arnasguneak”</b></p> <p>“Arnasguneak” euskara naturaltasunez transmititzen eta garatzen diren zonaldeak dira, batez ere udalerrri euskaldunak; hizkuntza-politika berezirik gabe euskara naturaltasunez erabiltzen diren lekuak. Horietan, lehentasunezko funtzioak betetzen ditu euskarak eta hainbat esparrutan eskusiboak.</p>	<p><b>20. Informazio-karta</b></p> <p><b>Dentsitate-guneak</b></p> <p>“Dentsitate-guneak”, herri batean euskararen presentzia oso handia bereganatu duten toki zehatzak dira (ikastetxea, familia, aisialdi-lekuak...). Batzuetan berez, normaltasunez sortutakoak dira, beste batzuetan, berriz, apropos eraikitako espazio sozialak dira. Espazio horietan euskarak nagusitasuna bereganatzen du.</p>	<p><b>21. Informazio-karta</b></p> <p><b>Lingua franca edo nazioarteko komunikazio-hizkuntza</b></p> <p>Ama-hizkuntza bera izan gabe elkar ulertzeko erabiltzen den nazioarteko hizkuntza da. Baina hizkuntza horrek, batetik, nazioarteko kultura transmititu behar du, eta ez kultura bakarra; eta, bestetik, ez dio lekua kendu behar lekuan lekuko hizkuntzari.</p>
<p><b>22. Informazio-karta</b></p> <p><b>Gizarte- eta komunitate-erantzukizuna eta erantzukizun pertsonala</b></p> <p>Gizartearekin hartzen dugun konpromisoa eta betebeharra da erantzukizuna; bai maila pertsonalean, bai maila kolektiboan. Esaterako, eskolak erantzukizunez erantzun du euskal gizarteak izan duen nahariari erantzuteko.</p>	<p><b>23. Informazio-karta</b></p> <p><b>Pentsamendu globala</b></p> <p>Mundua hemen, hau munduan. Globalizazioaren eraginez, han eta hemen egiten denak eragina du gugan, eta hemengoak ere eragina du munduan. Edozein hizkuntzaren biziberritzea lortzen bada, lagungarri izango da munduko gainerako hiztun-komunitateentzat. Edozein hizkuntza galtzen bada, galera da guretzat eta gure hizkuntzarentzat. Globalean pentsatuz, lokalean ekin.</p>	<p><b>24. Informazio-karta</b></p> <p><b>Hizkuntza-ekologistak behar dira</b></p> <p>Ekintzaile izatea konstantea izatea da, ekina eta tematia, jarrera eraikitzailea izatea. Hizkuntza-ekologistek bere hizkuntzaren alde eta beste hizkuntza guztien alde egiten dute. Jarrera aktiboa izatea etorkizuneko joera da.</p>
<p><b>25. Informazio-karta</b></p> <p><b>Berezia izatearen bizipoza</b></p> <p>Handiaren homogeneotasunaren aurrean, desberdintasunaren harrotasuna. XXI. mendean aniztasunaren aldeko pentsamendua, iraunkortasunaren filosofia ekologikoa, homogeneotasunaren aurrean berezia izatearen kontrastea indartzen ari da. Zerk egiten du gizaki eta gizarte bat interesgarriagoa, aberatsagoa, aurrerakoiagoa, solidarioagoa, bereziagoa, ikusgarriagoa?</p>		

<p><b>1. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Beharrezkoak al dira hizkuntza guztiak?</b></p> <p>Mundu gero eta globalago honetan, dozena bat hizkuntzarekin molda bagintezke, zertarako xahutu horrenbeste energia hizkuntza txikietan?</p>	<p><b>2. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Elebakartasuna ala hizkuntza-aniztasuna?</b></p> <p>Txinera mandarina, ingelesa, gaztelania, hindia, arabiera, bengaliera eta errusiera dira gaur egun munduan hitzun gehien dituzten hizkuntzak; hala ere, Txinan bakarrik 292 hizkuntza hitz egiten dira. Zer nahiago du gizarteak, hizkuntza handien elebakartasuna ala hizkuntza-aniztasuna?</p>	<p><b>3. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Hizkuntzak komunikazio-baliabideak soilik?</b></p> <p>Komunikatzeko gaitasunaz gain, zer gehiago ematen dio hizkuntzak gizakiari?</p>
<p><b>4. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Hizkuntza-aniztasuna, eredu berriaren zutabe</b></p> <p>Garapen iraunkorrak ingurumena, ekonomia eta gizartea elkarlotzen ditu. Hizkuntzen biziraupenerako ere ikuspegi sistemikoa landu behar da, kultura-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna, eredu berriaren ezinbesteko zutabeak dira.</p>	<p><b>5. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Euskararen barne-aberastasuna</b></p> <p>Zergatik dira garrantzitsuak euskalkiak?</p>	<p><b>6. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Zer balio dute beste hizkuntzek?</b></p> <p>Cegoña, Fuscallo, Zarrazina, Babuxa, Chuvisca, Froallo, Lapiñeira, Treixada, Xistra, Zarracina... hirurogeita hamar hitz inguru omen ditu galegoak euriarekin erlazonatuta. Zer garrantzi dute hitz horiek guretzat? Gurea ez den hizkuntza bat galtzen bada, galera da guretzat?</p>
<p><b>7. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Iragana ala etorkizuna?</b></p> <p>Zeren baitan da euskararen etorkizuna, iraganean bizirauteko balio izan duten arrazoietan edo egungo mundu globalean hartu behar diren neurri aktiboen egokitasunean?</p>	<p><b>8. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Tokian tokiko hizkuntzek babes-neurriak behar dituzte</b></p> <p>Hizkuntzen sistemak antza du ekologiaren ereduarekin, izaeran eta arriskueta, bizirauteko gutxieneko baldintzetan... Naturan, arriskuan dauden espezieek bezala, hizkuntza txikiagoek ere babesa eta aldeko neurrien premia dute eta eragin egin behar da hori garatzea oztopatzen duenarengan.</p>	<p><b>9. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Modernoa al da elebakartasuna?</b></p> <p>Gero eta anitzagoa den gizartean, gero eta jatorri anitzagoko pertsonen eremu bera konpartitzen duten garai hauetan, zer etorkizun izan dezake elebakartasunak?</p>



<p><b>10. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Zein da hizkuntzarik garrantzitsuen?</b></p> <p>Balio bera al dute hizkuntza guztiek? Zein faktorek eragiten dute hizkuntzen arteko desberdintasunetan?</p>	<p><b>11. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Berreskuratu ala irabazi?</b></p> <p>Hizkuntzarentzat irabaztea kontzeptua egokiagoa dirudi hizkuntza berreskuratzea kontzeptua baino. Horrela, esaterako, inoiz euskara izan ez dutenak errazago hurbilduko dira.</p>	<p><b>12. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Ez egin erdaraz euskaraz egin daitekeena</b></p> <p>Zergatik egin hizkuntza globalago batean tokian tokiko hizkuntza lokalean egin daitekeena?</p>
<p><b>13. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Desberdinen arteko konplizitatea</b></p> <p>Komeni da etorkizuna elkarren errespetuzko proiektuen bitartez eraikitzea; konplizitatea ere behar da, baina nola eraikitzen da konplizitatea?</p>	<p><b>14. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Hizkuntza gutxituen arteko elkartasunak elkarren arteko sendotzea dakar</b></p> <p>Elkartasunaren erronka elkar elikatzea da, ahuldutakoaren bizi-indarra sendotzea bere iraupena ziurtatzeko, aniztasunaren baitan.</p>	<p><b>15. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Aniztasunari esker gaitasun handiagoa du gizakiak munduko aldaketetara egokitzeko</b></p> <p>Gurera etorri diren senegaldar gehienek lauzpabost hizkuntza dakizkite eta ahalegina egiten dute euskaraz hitz egiteko; beste etorri berri batzuek berriz, ez. Zergatik?</p>
<p><b>16. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Zer da errespetua?</b></p> <p>Hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin bizi diren egoeretan, nola berma daitezke hizkuntza-praktika orekatuak?</p>	<p><b>17. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Utopia errealista</b></p> <p>Batzuentzat utopia hutsa izan liteke mundu hizkuntz aniztuna lortzea; baina ez al da utopia errealista bat? Merezi duen utopia? Izan ere, ez al da utopia irrealagoa aniztasunik gabeko mundua amets izatea?</p>	<p><b>18. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Bizitoki egokiak behar dituzte izokinek, eta hizkuntzek</b></p> <p>Izokinek ibai gutxi batzuetan erruten dituzte arrautzak; eta ez da nahikoa ibai garbi eta kutsatu gabeak izatea, hainbat oztopo gainditu ezean, ezerezean gelditzen baita haien ahalegina. Dirutza gastatzen ari dira administrazioak presa zaharrak eraitsi, ibaiak leheneratu eta izokinaren bizitoki egokiak berreskuratzen...</p>

<p><b>19. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Arnasguneen garrantzia</b></p> <p>Hizkuntza ahuldua biziberri dadin, zer garrantzi du hizkuntza hori nagusi den gune geografikoak izatea?</p>	<p><b>20. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Nora garamatza hizkuntzen arteko hierarkizazioak?</b></p> <p>Kontua ez da ingelesa hedatzearen aurka egotea, baizik eta horren aurreko ikuspegi kritikoa izatea, eta, horrela eginez, euskararen komunitatearentzat dauden aukerak lantzea.</p>	<p><b>21. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Zilegi al da hiztunei erantzukizuna eskatzea?</b></p> <p>Axolagabekeriak ez du zilegitasunik galeraren aurrean. Aldiz, jarrera aktiboa etorkizuneko joera da.</p>
<p><b>22. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Gutxiengoa aintzat</b></p> <p>Gizarte demokratikoaren lorpen garrantzizkoenetako bat da gehiengoaren iritzia, pentsaera eta portaera ez izatea gutxiengoenarentzat debeku-iturri.</p>	<p><b>23. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Boterearen erresistentziak</b></p> <p>Botere nagusietan erresistentziak daude oraindik mundu mailako adituek eta filosofia aurrerakoienek hizkuntza-aniztasunaren aldeko mezuak igortzen dituzten arren. Zein dira botere horiek hizkuntza-aniztasunaren aurrean dituzten erresistentzia nagusiak?</p>	<p><b>24. Eztabaida-karta</b></p> <p><b>Grisa ala koloretsua?</b></p> <p>Homogeneotasuna ala dibertsitatea, mugarik gabeko hazkundea ala garapen iraunkorra, aprobetxamendua ala zaintza, norbanakoa ala taldea, elkartasuna ala liberalismoa, kultura bakarra ala aniztasuna, gutxiengoekiko aitortza ala indar- jarrera... Nolako gizarte nahiko zenuke XXI. mendean?</p>

<p><b>1. Erronka-karta</b></p> <p>Euskara euskaldunok soilik egin dezakegu, guk hitz egiten ez badugu ez du beste inork hitz egingo. Azaldu taldekideei esaldi horrek sortzen dizun gogoeta.</p>	<p><b>2. Erronka-karta</b></p> <p>Batzuek diote ez dagoela arrazoirik inork inor hizkuntza nagusi bat erabiltzera bultzatzeko. Ados zaude?</p>	<p><b>3. Erronka-karta</b></p> <p>Azaldu zer sentrazio sorrarazten dizun guraso etorri berriek euren seme-alabei euren ama-hizkuntzan hitz egiten entzuteak, eta euren ama-hizkuntzan hitz egiten ez dutela antzematean?</p>
<p><b>4. Erronka-karta</b></p> <p>Azaldu zer sentrazio sorrarazten dizun Katalunian katalanei katalanez hitz egiten entzuteak eta Asturiasen asturiera.</p>	<p><b>5. Erronka-karta</b></p> <p>Taldea gizabidez jokatzeko ari da, baina gai honi lotutako gai taburen bat aipatu gabe utzi du? Hala bada, esan "Ez dugu aipatu...", eta hasi hizketaldia.</p>	<p><b>6. Erronka-karta</b></p> <p>Euskal Herrian platanoak jan nahi baditugu, kanpotik ekarri behar ditugu; sagarrak, aldiz, ez, sagarrak hemen baditugulako. Ikusten duzu loturarik horren eta euskararen erabileraren artean?</p>
<p><b>7. Erronka-karta</b></p> <p>Azaldu taldeari gai honen inguruan aipatu ez duzun sentipen bat.</p>	<p><b>8. Erronka-karta</b></p> <p>Hartu istorio-txartel bat. Istorio-txartel horretako pertsonaia zara; azaldu taldeari gai horren inguruan duzun iritzia.</p>	<p><b>9. Erronka-karta</b></p> <p>Agian noizbait gertatuko zitzaizun tokiren batera joan eta espero ez zenuen hizkuntza bat entzutea, hizkuntza hori zegoenik ere ez jakitea. Zer sentitu zenuen?</p>

### 10. Erronka-karta

Hizkuntza txikiagotuek iraun ahal izateko, hizkuntza horietako hiztunak eta hizkuntza handikoak inplikatu behar dira. Hizkuntzen iraunkortasuna guztion ardura da. Azaldu taldekideei esaldi horrek sorrarazten dizun gogoeta.

### 11. Erronka-karta

Etorkizunean nagusi den joerak ez du elebakartasuna babesten, aniztasuna baizik; modernoagoa da aniztasuna elebakartasuna baino. Ados zaude? Zergatik?

### 12. Erronka-karta

Hartu zure ikuspuntuaren kontrakoa den istorio-txartel bat. Azaldu taldeari zertan diren desberdinak zure ikuspegia eta txarteleko pertsonaiarena.

### 13. Erronka-karta

Galdetu zure eskuinean dagoen pertsonari zer iritzi duen elkartasun kontzeptuari buruz. Bilatu haren iritziaren aldeko argumentua.

### 14. Erronka-karta

Galdetu zure ezkerrean dagoen pertsonari zer iritzi duen berdintasun kontzeptuari buruz. Egin deabruaren abokatuarena, eta egin kontra haren ikuspuntuari.

### 15. Erronka-karta

Hartu zure ikuspuntuaren kontrakoa duen pertsonaia baten istorio-txartela. Izan zaitez pertsonaia hori eta azaldu taldeari eztabaidagaiari buruz duzun iritzia.

### 16. Erronka-karta

Hizkuntza bat desagertzen denean, lurralde-eremu horretan beste hizkuntza bat inposatzen delako izaten da. Azaldu taldekideei esaldi horrek sorrarazten dizun gogoeta.

<b>Karta horia!</b> Erabili karta horia taldeari arauak betetzen laguntzeko. Karta taldeari erakutsi arau bat hautsi dela uste baduzu edo ez baduzu ulertzen zer gertatu den.	<b>Karta horia!</b> Erabili karta horia taldeari arauak betetzen laguntzeko. Karta taldeari erakutsi arau bat hautsi dela uste baduzu edo ez baduzu ulertzen zer gertatu den.	<b>Karta horia!</b> Erabili karta horia taldeari arauak betetzen laguntzeko. Karta taldeari erakutsi arau bat hautsi dela uste baduzu edo ez baduzu ulertzen zer gertatu den.
<b>Karta horia!</b> Erabili karta horia taldeari arauak betetzen laguntzeko. Karta taldeari erakutsi arau bat hautsi dela uste baduzu edo ez baduzu ulertzen zer gertatu den.	<b>Karta horia!</b> Erabili karta horia taldeari arauak betetzen laguntzeko. Karta taldeari erakutsi arau bat hautsi dela uste baduzu edo ez baduzu ulertzen zer gertatu den.	<b>Karta horia!</b> Erabili karta horia taldeari arauak betetzen laguntzeko. Karta taldeari erakutsi arau bat hautsi dela uste baduzu edo ez baduzu ulertzen zer gertatu den.
<b>Karta horia!</b> Erabili karta horia taldeari arauak betetzen laguntzeko. Karta taldeari erakutsi arau bat hautsi dela uste baduzu edo ez baduzu ulertzen zer gertatu den.	<b>Karta horia!</b> Erabili karta horia taldeari arauak betetzen laguntzeko. Karta taldeari erakutsi arau bat hautsi dela uste baduzu edo ez baduzu ulertzen zer gertatu den.	<b>Karta horia!</b> Erabili karta horia taldeari arauak betetzen laguntzeko. Karta taldeari erakutsi arau bat hautsi dela uste baduzu edo ez baduzu ulertzen zer gertatu den.

## Jokaldi-orria

Jokaldiaren izena:

Jokaldi honetako kartak:

Istorioak	Informazio-kartak	Eztabaidagaiak	Karta zuriak

Zer ondoriotara iritsi zara karta-multzo hau aztertu ondoren?

## Proposamen eta Konpromisoen Orria

**Proposamenak:**

**Konpromisoak:**

Gai honi buruzko...

## POSIZIONAMENDUAK

### 1. Euskararen arnasmune-lurraldeak sustatu.

Gehiengoz euskaldunak diren udalerrietan, instituzioek eta komunitateak lan egin behar dute euskararen tokiko ekosistemaren iraupena bermatzeko eta indartzeko, subsidiarotasunaren printzipioa aplikatuz (bertako hizkuntza 'lokal' batean egin daitekeena ez egin beste hizkuntza 'global' batean) eta eguneroko funtzio lokalak euskarari esleituz.

### 2. Euskararen dentsitate-guneak sustatu.

Gehiengoz euskaldunak ez diren udalerrietan, instituzioek eta komunitateak lan egin behar dute euskararen tokiko ekosistema berreraikitze eta indartzeko, herriko espazio batzuetan euskarak nagusitasuna izango duen dentsitate-guneak sortuz eta hedatuz.


### 3. Euskararen lekua gizarte-funtzioetan sustatu.

Euskal gizartearen maila guztietan, instituzioek eta komunitateak lan egin behar dute euskararen iraunkortasuna bermatuko duen hizkuntza-ekosistema osoa saretzeko, gizarte-funtzio nagusi orotan euskarak transmisiorako eta komunikaziorako aski indarra eta lekua izango duela bermatuz.

### 4. Hizkuntzarekiko komunitatearen gizarte-erantzukizuna sustatu.

Euskal gizartearen maila guztietan, komunitateak eta herritarrok lan egin behar dugu euskararen iraunkortasuna bermatuko duen hizkuntza-ekosistema osoaren garapen harmonikoa sustatzeko, dugun gizarte-erantzukizunaz kontzientzia zabalduz eta parte hartzen dugun era guztietako gizarte-instituzioetan positiboki eraginez.

### 5. Taldean landutako beste posizionamendu batzuk.







## Hizkuntza-ekologia

### Zer da hizkuntza-ekologia?

Hizkuntza guztien garapen iraunkorra helburu duen zientzia eta praktika da.

Hizkuntza-aniztasunaren balio unibertsalean oinarritzen da, baita berdintasunaren eta elkartasunaren printzipioetan ere.

- Hizkuntzen arteko harreman ekosistemikoak balio etikoen bitartez interpretatzen ditu, munduko hizkuntza gutxituen –edota tokian tokiko hizkuntza bakoitzaren– garapena eta iraupena bilatzeko, hizkuntza hedatuagoen eraginez gal ez daitezen.
- Hizkuntzak komunitatearekiko, hiztunarekiko eta naturarekiko duen harremana eta lotura aztertzen du, hizkuntzaren ekosistema hiztun-komunitatea baita.
- Horretarako, babes- eta sustapen-neurri estrukturalak hartu beharra aldarrikatzen du. Gainera, hizkuntza gutxituetako hiztunak mugiarazi nahi ditu, baita hizkuntza hedatuetakoko hiztunak ere.

Lokalean ekinez munduko hizkuntza-galera masiboaren aurrean eragiten du, eta mundu mailako pentsamenduan eraginez, tokian tokiko ekimenak sendotzea bilatzen du.

### Posizionamenduak

#### 1. Euskararen arnasmune-lurraldeak sustatu.

Gehiengo euskaldunak diren udalerrietan, instituzioek eta komunitateak lan egin behar dute euskararen tokiko ekosistemaren iraupena bermatzeko eta indartzeko, subsidiariotasunaren printzipioa aplikatuz (bertako hizkuntza 'lokal' batean egin daitekeena ez egin beste hizkuntza 'global' batean) eta eguneroko funtzio lokalak euskarari esleitzuz.

#### 2. Euskararen dentsitate-guneak sustatu.

Gehiengo euskaldunak ez diren udalerrietan, instituzioek eta komunitateak lan egin behar dute euskararen tokiko ekosistema berreraikitze eta indartzeko, herriko espazio batzuetan euskarak nagusitasuna izango duen dentsitate-guneak sortuz eta hedatuz.

#### 3. Euskararen lekua gizarte-funtzioetan sustatu.

Euskal gizartearen maila guztietan, instituzioek eta komunitateak lan egin behar dute euskararen iraunkortasuna bermatuko duen hizkuntza-ekosistema osoa saretzeko, gizarte-funtzio nagusi orotan euskarak transmisiorako eta komunikaziorako aski indarra eta lekua izango duela bermatuz.

#### 4. Hizkuntzarekiko komunitatearen gizarte-erantzukizuna sustatu.

Euskal gizartearen maila guztietan, komunitateak eta herritarrok lan egin behar dugu euskararen iraunkortasuna bermatuko duen hizkuntza-ekosistema osoaren garapen harmonikoa sustatzeko, dugun gizarte-erantzukizunaz kontzientzia zabalduz eta parte hartzen dugun era guztietako gizarte-instituzioetan positiboki eraginez.

#### 5. Taldean landutako beste posizionamendu batzuk.

### Jokoaren helburuak:

- Zure iritzia argitzea
- Talde-ikuspegi bateratua lortzeko lan egitea: *Jokoa bai?*
- Eztabaidaz gozatzea!

Idatzi zure hasierako pentsamenduak, eta erabili txartel zuriak gaiak gehitzeko.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Eztabaida-karta

Eztabaida-karta

Erroka-karta

## Arauk

Zure iritzia emateko eskubidea duzu: azaldu zure egia. Azaldu ezazu zure iritzia, tematia izan gabe. Bizitzan izandako esperientziek balioa dute. Errespetatu gainerako pertsonak. Utzi amaizten, zu hitz egiten hasi aurretik. Gozatu iritzien aniztasunaz. Ustekabea eta harridura-sentimenduak onartu, pentsamendu edo sentimendu berriak jaso dituzun seinale baitira. Adostasun-puntua bilatu. Kontuan hartu iritzi-ezberdintasunak eta –antzekotasunak.

## Hiru buelta

### 1. Irakurri eta azaldu

Argitu gaiaren inguruan duzun iritzi pertsonala, kartak irakurrita eta zuretzat garrantzitsuak direnak aukeratuta. Jarri zure kartak mahai-tapizean eta irakurri testua ozen gainerako jokalariei.

± 30 MIN.

### 2. Solas egin eta eztabaidatu

Gainerako jokalariekin batera, hasi eztabaidatzen eta identifika itzazu talde osoarentzat garrantzitsuak diren gaiak. Bota zure kartak mahai gainean, gai bakoitzerako zure argumentuak azaltzeko eta hasi guztion kartekin familiak osatzen.

± 30 MIN.

### 3. Jokoa bai?

Karta-familietan identifikatu dituzuen jokaldiak adostu eta bakoitzari izen bat jarri, dagokion gaiaren arabera. Jokaldi bakoitzarekin Jokaldi-orri bana bete, jokaldiaren izena, jokaldia osatzen duten kartak eta jokaldiaren ondorioak idatziz.

± 20 MIN.

## ... beste bat gehiago

### 4. Ekintza

- Zuen inguruan bideratzeko proposamenak egin edota konpromisoak hartu.
- Igo zure taldearen emaitzak EkolinguA-ren datu-basera.
- Ikusi beste toki batzuetako emaitzak.
- Irakurri gehiago gai honen inguruan
- Ikasi zenbaterainoko eragina izan dezakezun EkolinguA-ra jolastu ondoren.